

IES JUAN OROBIOGOITIA BHIren “ESKOLA JASANGARRIA” TXOSTENA

Zorionak eman nahi dizkizuegu Jasangarritasunerako Hezkuntzarekiko egindako lan on eta jarraituagatik eta ahalegin hau hezkuntza komunitate guztira eta ikastetxeko eguneroko bizitzara zabaltzeagatik.

“Eskola Jasangarria” agiriarekin hurrengo urteetan ere horrela jarraitzera animatzen zaituztegu.

Txosten honek bide hori egiten eta hobetzen lagundu dezakeela espero dugu.



1.-JASANGARRITASUNA


Helburua: Hezkuntza komunitatean Tokiko zein Planetako Ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza landu, jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Ikastetxean eta honen inguruan ingurumen-kalitatea eta jasangarritasunaren aldeko apustu garrantzitsua egin da, eta ikastetxeko hainbat gunetan, programak presentzia du: horma-irudiak, eraikin bietako txoko berdeak, konpromisoak gela guztietan eta baita irakaslearen koadernoan...
- Ikastetxearen plangintzan eta dokumentuetan modu argiz jasota daude jasangarritasunaren inguruko hausnarketa eta planteamendu etikoak.
- Komunikazio eta informaziorako bide desberdinak ondo antolatu dira hala nola, web orrialdea, Einika, postontzi fisiko eta digitala... eta ondo komunikatzen zaizkio hezkuntza komunitateari jasangarritasunarekiko ikastetxearen asmoak.
- Ikastetxeko kudeaketarako antolakuntza ondo eratuta dago (paperaren bilketa geletan eta sarrerako espazioan) eta ekintza asko egiten dira ikasleak motibatzeke hala nola, EA21 eguna, Ibaialde kanpaina, irteerak, eskolaz kanpoko ingurumen kanpainen parte hartu...
- Hezkuntza komunitatearen gogobetetasun-maila ebaluatzen da.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Prozesuan duzuen Tutoretza planean Eskola Agenda 21 programak eta jasangarritasunarekiko hezkuntzak modu argian tokia izatea.



2.-KONPLEXUTASUNA

Helburua: Ikastetxe eta udalerriko ingurumen arazoaren konplexutasuna identifikatzea eta aztertzea, alternatibak proposatzea eta udal foroetan ezagutaraztea.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Ingurumenaren alderdi anitzak arlo desberdinetatik lantzen dira eta gai desberdinak integrazteko aukera egokiak aurkitzen dira.
- Ikuspegi lokalaz gain, planetaren dimentsioa ere lantzen da proiektu desberdinen bidez, adibidez mugikorren kanpainan, Jane Goodalekin batera.
- Eskola-komunitateko partaideen proposamenak eta ikuspuntu ezberdinak batu eta adosten dira.
- Ikasleek proposatutako konponbideak bideratzen saiatzen da ikastetxea, adibidez 4.DBHko liburutegi espazioaren kasuan, eta ikasleen ekarpenak ikastetxearen hainbat txokotan islatzen dira.
- Ingurumen azaroak aztertzean, ingurune soziala ere kontuan hartzen da eta gizakiengan eragindako ondorioak aztertzen dira, horretarako ACNUR, "Ongi etorri errefuxiatuak" hitzaldiak ere antolatuz.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Irakasleen prestakuntza planean, jasangarritasunaren dimentsioa txertatzea.
- Ingurumenaren ikuspegi sistemikoa lantzeko arlo, mintegi eta proiektuen koordinazioan sendotzea iradokitzen da.



3.-PROZESUA

Helburua: Ikastetxe eta udalerriko jasangarritasuna lortzeko prozesuak abiatzea.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Zuzendaritza taldeak EA21eko egitura eta antolakuntzako prozesuak errazten ditu, baita, bermatzen ditu baliabideak, tokia eta denbora EA21 garatzeko.
- Ingurumen batzordeak ondo funtzionatzen du eta zuzendaritzak parte hartzen du.
- Proiektuaren dokumentazioa ondo antolatuta dago.
- EA21eko helburuak argiak eta ezagunak dira ikastetxean.
- EA21eko fase eta metodologia ondo bereizi eta garatzen dira ikastetxean.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Ikastetxeak abian jarritako Erosketa berdearen plana aurrerantz eramatea.
- Nahiz eta ikastetxearen kontsumo batzuk erregistratuta izan, kontsumoak (energia, ura), curriculumean txertatuz, urtero sistematikoki erregistratzea, eta murriztea gomendatzen da.



4.-PARTE-HARTZEA

Helburua: Ikasleei bereziki, baina Hezkuntza Komunitate osoari ikasketetan, ikastetxearen jasangarritasunean eta herriaren bizitzan protagonismoa ematea.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Ikastetxeak uneak eta espazioak eskaintzen ditu, ikasleek beren artean eztabaida dezaten.
- Ikasleek proposaturiko ekintza batzuk kudeatzen direla baieztatu dugu.
- Ingurumen batzordean ikasleek osatzen dute gehiengoa eta modu autonomoan hartzen dituzte erabakiak. Ikasle talde boluntarioak daudela baieztatu da eta horiei denbora eta espazioak eskaintzen zaizkiela ere bai.
- Familiek ere Ingurumen batzordean parte hartzen dutela baieztatu da.
- Ahal den neurrian herriko hedabideak erabiltzen ditu ikastetxeak.
- Udalari egindako eskakizunak eta ikastetxean hartutako konpromisoen jarraipena egiten da.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Nahiz eta Ingurumen Batzordean ikasleen parte aktiboa bultzatu, ikasleek modu autonomoago batean jardutea gomendatzen da, hau da, beraien kabuz batzartu, ikasleek sortutako ideiak, proiektuak, ekitaldiak... beraien kabuz sustatzea. Laburbilduz, Hart-en eskaileran aurrera pausuak ematen joatea.



5.-ELKARLANA

Helburua: Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta ikasle eta irakasleen artekoa ere.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Ikasleak talde-lanean aritzen dira, hainbat eragilerekin: beste ikaskide batzuekin talde kooperatiboan arituz, bidelagunen, giza talde ezberdinetako kideekin eta abarrekin.
- Ikastetxean estamentu ezberdinekin elkarlanaz aritzeko esperientzia dago: lehiaketak, jaiak, eta abar.
- Eskolako Agenda 21eko koordinazio bileretan eta beste foro batzuetan ikastetxeko ekarpenak oso interesgarriak dira eta institutuan egindako hainbat praktika konpartitzen dira.
- Udalerrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzen du ikastetxeak eta hezkuntza komunitatea ere parte hartzera animatzen da.
- Ikastetxearen ingurua ezagutzeko ahalegina egiten da, adibidez txangoak, bisitak antolatuz irakasle eta ikasleekin.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Talde-lana eta kooperazioa lantzen jarraitzea eta alor eta gai guztietan integratzea iradokitzen da.



6.-CURRICULUMA

Helburua: Garapen jasangarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko urriculuma egokitzea, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte hartzaileak erabiliz.

Sendotasun hauek nabari dira:

- Urterik urte EA21eko gaiak maila zehatzetan integratzen dira arazo egoeren bidez.
- Testuinguru anitzak antzematen dira, ikasitakoa praktikara eramateko.
- EA21eko esperientziak finkatu dira eta hainbat arlotan txertatuta daude.
- Egin eta ekiten irakasten saiatzen da, pentsatzen eta arazoak konpontzen ere.

Hobetzen jarraitzeko iradokizunak:

- Ingurumen hezkuntza indartzeko eta jasangarritasuna sustatzeko behar diren balioak areagotzeko diziplinarteko proiektuak bultzatzen jarraitzea.
- Mintegi eta proiektu ezberdinen koordinazio sistema eraginkorragoa eratzea proposatzen da.

